

47. Ingurumen Buletina



2018ko uztaila

1. AHTren diru xahutzea eta gezurrak
2. Gipuzkoako hondakinak ez erre, ez hemen ez inon
3. Nafarroako Hondakinen Legea beste lurraldeentzat eredugarria
4. Sektore energetikoa genero ikuspuntutik
5. Bideoak: Ingurumenaren Nazioarteko Eguneko hitzaldiak



1. AHTren diru xahutzea eta gezurrak

Europako Kontuen Epaitegiak abiadura handiko trenbide sarearen inguruko txosten bat argitara atera berri du. Txosten honen ondorio nagusiak hauek dira:

- Gaizki konektatutako trenbide sare nazionalen mosaiko bat eraiki da.
- Abiadura handiko lineak eraikitzeko erabakia politikoa da sarritan, eta ia inoiz ez da koste-onura analisirik egiten erabakiek oinarri errentagarri bat izan dezaten.
- Abiadura handiko trenbide azpiegitura garestia da: auditatutako lineen kostea 25 milioi euro kilometrokoa da.
- Ditugun trenbide arrunten lineen modernizazioa kontuan hartzeak milioika euro aurreztuko lituzke.
- Gainkosteak eta atzerapenak ohiko egoerak izan dira eta ez salbuespenak.
- Auditatutako linea eta mugazgandiko lotura gehienak ez zuten nahikoa bidaiari potentzial bere influentzia zonaldean (9 milioi bidaiari behar dira linea bat errentagarria izateko).

Ikusten den bezala, abiadura handiko trenari osoko zuzenketa bat da, guztiz ezbaian jartzen da. Baina gainera, txostenak zehazki Euskal Ya aipatzen du. Kritika orokor honen testuinguruan kokatu eta gainkostearen adibide garbia izaten ari dela baieztatzen du. Euskal Ya Frantziarekin lotzeko dagoen proiektu falta da aipatutako gabezia honen adierazle nagusia, nahiz eta Eusko Jaurlaritzak onartu nahi ez duen.

Txosten honetan ez da merkantzien garraioa aipatzen, ez baita munduko inongo AHT linearik horretarako erabiltzen, azterketa eta txosten ugari dauden merkantziak garraiatzea posible ez dela esaten dutenak. Azkena espainiar sustapen ministro ohia izan zen. Baina Eusko Jaurlaritzak AHTa mistoa izango dela eta bidaiari kopuru nahikoa ez izatea merkantziekin konpentsatuko dela esaten jarraitzen du. Lehiakortasun Sailburu Arantza Tapiak egiten dituen kalkuluak asko gerturatu dira 9 milioira (8 milioi bidaiari izango dira bere ustetan). Euskal Ya errentagarria ez dela esaten duen txosten bat agertzen den bakoitzean Eusko Jaurlaritzak datu berri bat ateratzen du kontrakoa baieztatzeko.



AHTren benetako gainkostua %16koa da Gipuzkoako zatian (Eusko jaurlaritzak kontrolpean duen zatian), nahiz eta Tapiak Sailburuak %8a dela esan, eta gehitzen du guztiz onargarria dela dio. Ez duena esaten zera da, onargarria eta ordaingarria dela murrizketak eginez, orain arte egin den bezala. Ez dago azken 10 urtetako aurrekontuak ikustea besterik.

Berritoki ere Eusko Jaurlaritza jakinaren gainean ari da gezurrak esaten. Baina aitortzen ez duten interesa, negozioarena, gailendu egiten da. Horixe erakusten du beste azterketa batek ere,

Espainiako Geografoen Elkartearenak. Honen arabera, Estatuko AHTn egon den diru xahuketa azken 20 urtean 26.240 milioi eurokoa izan da. Honi gehitu behar zaizkio autobia eta autopistetan xahutu diren 5.952,6 milioiak, eta portu eta aireportuetako beste 9.512,2 milioiak.

Estatuko azpiegitura eredia, Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako gobernuak ere defendatzen dutena, zer behar den pentsatu gabe eraikitzean oinarritzen da. Ez da inongo iraunkortasun ekonomiko, sozial edo ingurugirokorik duen aztertzen. ELAk urteak daramatza hau salatzen eta alternatibak badirela defendatzen. Benetako trenbide soziala da alternatiba. Pertsonen zerbitzura egongo den trenbidea, lurralde barneko eta kanpoko loturak bermatuko dituena, eta benetan erabilera mistoa izango duena (merkantziak eta bidaiariak). Hau da etorkizuneko eredia eta ez AHT, eraiki aurretik badakigu AHT dela dagoen eredu okerrena.

2. Gipuzkoako hondakinak ez erre, ez hemen ez inon

Gipuzkoako Foru Aldundiak jakinarazi berri du Gipuzkoan tratatu ezin diren hondakinak Bizkaiara eramango dituela, Zabalgargin erre eta errauts toxikoek Artigas bezalako zabortegi arrunt batean bukatuko dute. Irteera guztiz arduragabea eta onartezina.

Hondakin hauek Gipuzkoan bertan ezin tratatzearen errua tratamendu planten eraikuntza geldiaraztea erabaki zuenarena da, hau da, EAJk eta PSEk osatzen duten Foru Gobernuarena. Bazegoen Gipuzkoan hondakinen frakzio guztientzat tratamendu plantak eraikitzeke proiektua eta bertan behera utzi zuten erraustegia eraikitzeke.

Erabaki guzti hauen atzean erraustegia bai ala bai eraikitzeke EAJk eta PSEk izan duten jarrera dago, hori da beraien interes nagusia, ez iraunkortasuna bermatzea. Negozioa egitea da lehentasuna. Gipuzkoako Batzar nagusietan gertatutakoak argi erakusten du hau. EH Bilduk eta Ahal Duguk pixoihalak eta konpresak bereiztuta jasotzeko proposamena egin duten, dagoeneko badagoelako hauek birziklatzeko teknologia. Baina PNV eta PSEk atzera bota dute proposamena esanez dagoeneko erraustegia bideratua dagoela.



Bi Foru Aldundiek egin dituzten adierazpenak ikusita, edonork pentsa dezake Bizkaiako hondakinen kudeaketa eredia erreferentzia ona dela beste herrialde batzuentzat. Baina errealitateak ez du zer ikusirik. Birziklapen tasa onargarrien eta eredu iraunkor baten oinarria hondakinak sailkatuta jasotzean. Datu honi erreparatuta ikus dezakegu zein egoeratan dagoen herrialde bakoitza.

2017an Gipuzkoan hondakinen % 53 bildu zen selektiboki, Bizkaian berriz %44a jaso zen bereizita. Biak ala biak datu kaxkarrak dira. Debagoiena eskualdean ordea, hondakinen %79 jaso

zen bereiztuta, hau bada kontuan izateko kudeaketa eredua, derrigorrez hondakinak bereiztea eskatzen duena. Gakoa derrigortasunean dago, horrek bermatzen du benetako birziklapen tasa onargarri batera iristea eta ez 5. edukiontzi bat kalean jartzea hondakin organikoentzat norbaitek erabili nahi badu ere.

ELAk badu alternatiba hondakinen kudeaketa eredu kaltegarri honen aurrean. Lehenik eta behin, hondakinen kudeaketa iraunkor bat zero zabor helburuarekin. Hau da, ahal den guztia birziklatzea eta birziklatzen ez denari erraustea edo balorizazio energetikoa ez den irteera bat ematea (zabortegi ez kutsatzaileak, diseinu aldaketak,...). Eta noski erraustegirik ez, ez Gipuzkoan ez inon.

Herritarrok modu arduratsuan kontsumitu eta hondakinak ahalik eta gehien berrerabili eta birziklatzeko ardura dugun arren, gure instituzioek aurrera eraman beharreko politikak dira helburua betetzea baldintzatzen dutenak. Negozioa bada helburu nagusia sekula ez dugu zero zabor helburua lortuko, ez dutelako baliabide nahikorik jarriko eta gainera oztopoak jarriko dituztelako. Gipuzkoan eta Bizkaian hori ari da gertatzen.

Badira gure inguruan hondakinen kudeaketa eredu ezberdina aurrera eramaten ari direnak. Nafarroan onartu berri duten Hondakinen Legea adibide bat da. Lege hau aurrerapauso bat da eta gainontzeko herrialdeentzat erreferentzia. Neurrien artean daude hondakin organikoak bereizteko derrigortasuna, plastikozko poltsak dohainik ematea debekatzea, erabilera bakarreko monodosiak, kapsula, plater, edalontzi eta antzekoen salmenta debekatzea, ostalaritzan iturriko ura dohainik eskaintzea, administrazio publikoetan erosketa berdea bultzatzea, neurri fiskal egokiak... Beste modu bateko hondakinen kudeaketa ereduak posible direla demostratzen du.

3. Nafarroako Hondakinen Legea beste lurraldeentzat eredugarria

Ekainean Nafarroako Parlamentuak Hondakinen Legea eta bere Fiskalitatea onartu zituen gobernuan dauden lau alderdien aldeko botoekin eta gainontzekoen kontrako jarrerarekin. Euskal Herrian dugun Hondakin Lege aurrerakoiarena eta iraunkorrena da onartu dena eta horregatik gainontzeko lurraldeentzat eredugarria izan behar da. Hauek dira ezarri diren helburu eta neurri esanguratsuenak:


Helburuak:

- Berrerabilpena: 2028rako ostalaritzan ontzietan %70-80 (ontziaren arabera), %40 uren ontzietan.
- Organikoa: Hondakin organikoen bilketa selektiboa lurralde osora zabaldu. 2027rako 70% selektiboki bildu, %10eko inpropio tasarekin. Konpostajea lehenetsi. Ezin bada konpostatu, biometanizazioa (nahastutako hondakinekin kalitate oso baxua duen konpost hantzekoa egitea).
- 2027rako berrerabilpenerako eta birziklapenerako prestatuta hondakinak gutxienez %75a izango dira (papera, metalak, beira, organikoa, eta beste hondakin birziklagarriak).
- 2027rako etxeko eta merkataritzako hondakinen %25a joango da gehienez zabortegi edo erraustegira (legeak errausketa aipatzen du, nahiz eta kudeaketa planean ez den erraustegiaren eraikuntzarik planteatzen).

Neurriak:

- 2020rako plastikozko poltsak ematea debekatuko da.
- 2020rako erabilera bateko edalontzi, plater, bandeja eta tazak saltzea debekatuko da.
- 2020rako material ez birziklagarriekin ontziraturako monodosiak ere debekatuko dira.
- Ostalaritzan bezeroaren eskariz iturriko ura eman beharko da.

- Administrazioak egingo dituen erosketetan material berrerabilgarrien, birziklagarrien, eta birziklatuen erosketak lehenetsiko du.
- Obra publikoen exekuzioetan material birziklatuak erabiltzea bermatuko du.
- Administrazio publikoak espazio publikoetan iturriak jartzea eta ura ontzi berrerabilgarrietan edatea bultzatuko du.
- Ospitaletan ezik, gainontzeko eraikin publikoetan plastikozko ur botilak saltzea ekidingo du.
- Eraikin publikoetan eta diru publikoa jasotzen dutenen eraikinetan hondakinen planak egin eta aplikatu beharko dira, ontziak gutxitzeko helburuarekin.



Fiskalitatea:

- 2018ko uztailearen 1etik aurrera (indarrean jada) zabortegietara eta erraustegietara eramaten diren zaborrei zerga jarri zaie, bai entitateei eta bai kudeatzaileei, bai pertsona fisikoei eta baita juridikoei ere. Udaletako tasekin batera ezarriko dira, ez ditu ordezkaten. Sarrerak Hondakinen Fondora bideratuko dira.
- Hondakinen fondoa kudeaketa planak eta legeak ezarriko neurriak finantzatzeko erabiliko da. Hondakinen hierarkia bermatzea, helburuak betetzea, ingurumen larrialdiei erantzutea ,... egiteko bideratuko dira fondoak.

Esan dugun bezala, holako neurriak gero eta gehiago ari dira ezartzen hondakinen

kudeaketa benetan iraunkorra egin nahi den lekuetan. Norabide hau eta neurri hauek dira ELAK exijitzen dituenak erraustegiaren eredu bultzatzen ari diren tokietan.

4. Sektore energetikoa genero ikuspuntutik

Ekainaren 28 eta 29an EHUko udako ikastaroen barruan trantsizio energetikoaren inguruko ikastaroa izan zen. Ikastaro honetan trantsizio energetikoa ikuspuntu ezberdinetatik aztertu zen, esaterako burujabetza, eraginkortasun energetikoa, enplegua edo genero ikuspuntua. Azken hau, buletin honetan inoiz aztertu ez dugulako, berritzaileena da.

Energia ereduak emakumeengan duen eragina azaldu zen:

- Pobrezia energetikoa.
- Energia ez da oinarrizko beharizan gisa hartzen eta espekulazioaren esku dago.
- Gatazka armatuak eragiten ditu, eta ondorioz sexu abusu egoerak ere bai.
- Herrialde pobreenetan dauden industria erauzketa industrien handien inguruan pobrezia eta prostituzioa sortzen da.
- Megaproiektu energetikoen giza eskubideen urraketak dakartzate. Megaproiektu hauen aurka eta komunitateen alde borrokan ari direnak emakumeak dira batez ere, eta beraien bizitzekin ordaintzen dute (Berta Caceres,...).

Krisi ekonomikoaren eta pobrezia energetikoaren eraginak aztertu ziren, batez ere emakumeak sufritzen dituztenak:

- Babes soziala gutxitzea: sektore publikoa murriztea.
- Lan eskubideak murriztea eta denbora partzialeko lanaldia areagotzea.
- Berdintasun politikak geldiaraztea.
- Krisiaren eragina eremu pribatuan emakumeek arintzen dute.
- Pobrezia energetikoa emakumeen ahultasuna areagotzen du, eta bere osasuna eta oinarrizko eskubideak arriskuan jartzen ditu.
- Klima aldaketak eremu feminizatuetan du eragina batez ere: nekazaritza, iraupen ekonomiak, ur edangarria eskuratzea, migrazioak,...



Ikusi daitekeen bezala, eraginak mundu osoan eta bizitzako eremu askotan sufritzen dira. Eta batez ere emakumeak izan eragin hauek sufritzen dituztenak, emakumeak dira beraien lurraldeak eta gorputzak suntsitzen dituen sektore energetikoaren aurka borroka gehien egiten dutenak.

5. Bideoak: Ingurumenaren Nazioarteko Eguneko hitzaldiak

Ekainaren 5ean, Ingurumenaren Nazioarteko Eguna ospatu genuen ELAn Tabakalera izan genuen jardunaldiekin. Aurten gure instituzioen politikak klima aldaketaren aurkakoak direla salatu genuen. Urko Apaolaza AHTren inguruan idatzi duen Zuloan liburua aurkezten izan zen eta Ainhoa Intxaurrendietak eta Igor Meltxorrek Zubietako erraustegiaren atzean dagoena azaldu ziguten. Klikatu hemen hitzaldiak ikusteko: [Urko Apaolaza](#), [Ainhoa Intxaurrendieta eta Igor Meltxor](#).